

IKASGAIAREN PROGRAMA

Antropologia eta Gizarte Langintza ikasgai honetan disziplina antropologikoak Kulturaz eta aniztasun kulturalaz egiten dituen interpretazioak aztertuko ditugu. Horretarako, egile eta hildo teoriko nagusienetara hurbilduko gara. Azken xedea ezagutza antropologikoak Gizarte Langintzan sakontzeko eta gizarte eskuhartzean hobetzeko ezinbesteko tresnak eta ezagutzak eskeintzen dituela ulertzea eta ezagutzea da.

GAITASUNAK

Edukien aldetik...

- Antropologiaren oinarriko kontzeptuen esanahia eta kulturaren inguruko teoria interpretatzaileak ezagutzen ditut.
- Antropologiak Gizarte Langintzari egindako ekarpenak zeintzuk diren ezagutzen eta ulertzen ditut.

Prozeduren aldetik...

- Ikasgai bereganatutako edukiak errealitate soziala eta kulturala aztergai dudanean hartzen ditut kontutan.
- Irakurgai antropologikoak lantzen badakit eta ikaskideen aurrean azaltzen gai naiz.
- Irakurgaietako ideia nagusiak mapa kontzeptual batean biltzen eta ordenatzen badakit.
- Taldean eztabaida sortzen denean nire iritzia argitasunez ematen eta bestea entzuten eta ulertzen gai naiz.

Jarreraren aldetik...

- Aniztasun kulturalaz ohartzen naiz eta horregatik, 'bestea'-ren ikuspegia entzuten eta ulertzen zaiatzen naiz momentu oro.
- 'Ni'/'Gu' eta 'neurea'/'geurea' dena erdigunean jartzeko joera dudalaz konturatzen naiz eta horregatik eguneroko lanean hau gaingaitzen zaiatzen naiz.
- Ikasketa prozesuan jarrera aktiboa eta kritikoa erakusten dut.

GAI-ZERRENDA

1.go GAIA. Gizarte Antropologiari sarrera. Antropologiak Gizarte Langintzari dakartzkion ekarpenak.

2. GAIA. Antropologiaren oinarriko kontzeptu teorikoak: kultura, sinboloa, sistema sinbolikoa, etnozentrismoa, erlatibismo kulturala eta komunitatea.

3. GAIA. Antropologiaren historia. Kulturaren inguruko teorien garapena.

4. GAIA. Pobrezia eta bazterketa sozialaren inguruko interpretazio antropologikoa

5. GAIA. Genero-sistemaren teoria eta eztabaida feminista egitate sozialen hausnarketan.

6. GAIA. Etnizitatea eta emigrazioaren inguruko interpretazio antropologikoa.

7. GAIA. Ondorioak. Antropologiaren ekarpenak Gizarte Langintzara.

METODOLOGIA

Gizarte Langintzako Graduko irakaskuntza planak agintzen duen moduan, *Antropologia eta Gizarte Langintza* ikasgaiak bi atalez osatuta dago: arlo teorikoa eta arlo praktikoa.

Arlo teorikoan irakasleak gai-zerrendaren edukiak irakatsiko ditu apunteen, irakurgaien nahiz ikus-entzunezkoan bidez.

Arlo praktikokoan, berriz, ikasleei ariketa ezberdinak egitea proposatuko zaizue; testuak lantzea, klaseko eztabaidak, taldeka klase aurrean irakurgaiak aurkeztea, e.a.

EBALUAZIOA

Hiru gaitasun motak ebaluatzeko sistema hurrengoa da.

Ikasle guztiek urtarrileko azterketa gainditu beharko dute. Honek azken notaren %60-a balio izango du.

Klase praktikoetan egindako lana azken notaren %30-a balio izango du. Horretatik, %25-a talde lanaren bitartez ebaluatuko da eta beste %5-a banakako ebaluazioa izango da.

Azkenik, ikasleak klasean aurkeztutako jarrera, partehartzea, tutoretzetara joatea, e.a. azken notaren %10-a suposatuko du.

IRAKURGAIAK

1.go gaia

GONZALEZ, I., GAZTAÑAGA, A., IRIONDO, R. (1999) "Zergatik Antropología? Ikuspegi holistikoa". En: *Balioak, hezkuntz arauak, hizkuntza, sexualitatea, familia...* Donostia: Gaiak

2. gaia

BOHANNAN, L. [2008 (1966)] "Shakespeare en la selva"

OLARIAGA, A. "Erlatibismoa versus teología(k)". *Berria*

MALINOWSKI, B. [2011 (1944)]. "Zer da kultura?" En: *Kulturaren teoria zientifiko bat eta beste saiakera batzuk*. Donostia: Gaiak (43-49)

RADCLIFFE-BROWN, A.R. (1968). *Structure et fonction dans la société primitive*. Paris: Minuit

3. gaia

CLASTRES, P. (1980) "De l'ethnocide" En: *Recherches d'anthropologie politique*. Paris: Seuil (48-49)

MARTÍNEZ VEIGA, U. (2010). "Capítulo 1. Introducción" En: *Historia de la Antropología*. Madrid: UNED

4. gaia

CASTEL, Robert. (1995) "De la exclusión como estado a la vulnerabilidad como proceso" VV.AA. *Archipiélago: cuadernos de crítica de la cultura Nº 21*. Barcelona: Board

LIZCANO, E. (1995) "Para una crítica de la sociología de la pobreza". VV.AA. *Archipiélago. Cuadernos de crítica de la cultura Nº 21*. Barcelona: Board

5. gaia

Emakunde. "Maskulinitate hegeomonikoa"

6. gaia

JULIANO, D. (2002). "Los desafíos de la inmigración". *Anuario de psicología nº4, Vol 33* (pag. 487-498)

7. gaia

GALLEGO RANEDO, C. "Antropología Aplicada y Trabajo Social" In: *Acciones e Investigaciones Sociales*. (pags. 5-22)

IRAKASLEAREKIN KONTAKTUAN JARTZEKO

Tutoretza orduetan 16. bulegoan:

Asteazkenetan 10.30etatik 12.00etara

Ostegunetan 11.00etatik 13.00ak arte.

Ostiraletan 12.00etatik 13.00ak arte

Aldez aurretik irakasleari abisatzea komeni da hurrengo baliabideak erabiliz

Telefono zenbakia: 945 014256

E-maila: i.fernandezdelabastida@ehu.es